

## 1. “Memoria justifikatiboa” eta beste

Oroituko zarete, segur aski, nire fijazio faboritoetako bat dela hau... Bada, hariari tiraka segitzen dut. Ez inor gehiago konbentzitu nahian, baizik eta gaia gogoko dudalako.

Lehengoan jakin genuenez, Eusko Legebiltzarrak onartu berri duen *Lurzoruaren legea*<sup>1</sup> “memoria justifikatiboa” sintagma erabili dute, esate baterako:

**Memoria justificativa de** cumplimiento del informe preliminar de impacto ambiental

a) Ingurumen-kalteari buruzko aurretxostena betetzearen **memoria justifikatiboa**

Nire ustez, dudarik gabe,

b) Ingurumen-kalteari buruzko aurre-txostena egin izana **justifikatzen duen memoria**

edo, besterik gabe,

c) Ingurumen-kalteari buruzko aurre-txostena egin izanaren **memoria**

Hori buruen nerabilela, honako hau agertu zait lege batean: “sentencias declaratorias de la inconstitucionalidad de leyes”. Hori a) ereduaren arabera itzultzen badugu:

**legeen konstituziokontrakotasunaren epai deklaratiiboak**

Baina badakigu, jakin, horiek

**legeen konstituziokontrakotasuna deklaritzen duten epaiak**

**legeak konstituziokontrako deklaritzen dituzten epaiak**

direla. Ala ez?

Badira bi urte oso, uste dut, mintegian “ingurumen-eraginaren neurri zuzentzaileak” sintagmaz hitz egin genuela. Ni neu lehengoan nago —eta zuek ere neurri batean behintzat berdin pentsatzen zenutela uste dut—: horiek "ingurumen-eragina zuzentzeko neurriak" dira, eta “medidas correctoras” soil-soilik agertzen denean ere nahiko kezka ematen dit “neurri zuzentzaileak” esateak. Azkenean, aurkitu dut horrelako adjektiboez hitz egiten duen artikulu bat, eta hona hemen nola definitzen duen fenomeno: aditzetik eratorritako adjektibo batzuek *heredatu* egiten dute aditz horren argumentua. Adibidez:

Este gato **caza ratones**.

Este es un gato **cazador de ratones**.

Adibide mordoxka bat gehiago bildu dut.

Patxi Petrirena

2006ko urria

<sup>1</sup> 2/2006 legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa. EHAA, 2006ko uztailearen 20a.

## 2. Adjetivos que “heredan” el argumento de un verbo

Esan bezala, bila eta bila ibili ondoren, aurkitu dut fenomeno honetaz zerbait esaten duen pasarte bat Interneten. Hona hemen (azpimarratzeak nireak dira):

“Un último tópico relevante para la gramática generativa en cuanto a la relación léxico-sintaxis es el de la estructura argumental y temática en clases de palabras distintas de los verbos (adjetivos o nombres). Ello es especialmente claro para los adjetivos o nombres deverbales (i.e., derivados de verbos): así, **los adjetivos creados con el sufijo -dor “heredan” el argumento de sus verbos (como en gato cazador de ratones, donde ratones funciona como un argumento heredado del verbo cazar)**. Lo mismo sucede con las nominalizaciones como *contaminación* o *venta* (e.g., *la contaminación de las aguas por las petroleras / la venta de armas a Irán*). Este tópico ha sido tratado por diferentes autores para el español, entre los que se destacan Carme Picallo (1991, 1999), Ignacio Bosque & Carme Picallo (1996) y Lluís Gràcia (1995).”  
[http://aportes.educ.ar/lengua/popup/relacion\\_entre\\_lexico\\_y\\_syntax.php](http://aportes.educ.ar/lengua/popup/relacion_entre_lexico_y_syntax.php)

**ADIBIDEAK.** “Aditzaren argumentua heredatzen duten adjektiboak”. Aipaturiko *-dor* atzizkiak ez ezik, hauek ere (gutxienez) sortzen dituzte halako adjektiboak: *-ivo/a*, *-orio/a*, *-nte*.

### -IVO/A

- hecho **constitutivo** de delito<sup>2</sup>
- tratado **constitutivo** de la Unión
- resolución **declarativa** de derechos
- elemento **corrosivo** de la fe del pueblo<sup>3</sup>
- señal **indicativa** del tipo de transporte
- tratamiento **sustitutivo** de la función renal, terapia **sustitutiva** de la nicotina

### -NTE

- circunstancia **eximente** de culpa
- circunstancia **atenuante** de responsabilidad
- cinta **aislante** de voltaje, material **aislante** de luz, fluido **aislante** de transformador<sup>4</sup>
- producto **repelente** de insectos, sonido **repelente** de jóvenes<sup>5</sup>
- carta **justificante** de pago, fotocopia **justificante** de domiciliación bancaria
- factor **detonante** de la guerra, átomo **detonante** de la vida<sup>6</sup>
- cantidad **resultante** de la suma<sup>7</sup>

<sup>2</sup> Lehenbiziko hau, egiazki, ez da fenomenoaren erakusgarririk behinena, baina berezi samarra delako ekarri dut hona; 'hecho que constituye delito' esan nahi du, baina ez dakit hor *delito* hori *constituir* aditzaren objektu zuzentzat hartzekoa den.

<sup>3</sup> Ez da berdina, esaterako, beste hau: *efecto corrosivo de la pornografía en los menores*. Goikoan, 'elemento que corroe la fe' da, eta beste honetan, aldiz, ez da 'efecto que corroe la pornografía'.

<sup>4</sup> Ez dira berdinak, noski, honako hauek: *cable aislante de goma* (ez da 'cable que aísla goma'), *capacidad aislante de las cámaras de aire estancas* (ez da 'capacidad que aísla cámaras')

<sup>5</sup> Benetakoa da adibidea!

<sup>6</sup> Ez da berdina (uste dut), beste hau: *cápsula detonante de una granada de mano*. Horko *de* horrek kokapen-funtzioa duelakoan nago.

<sup>7</sup> Hori ere ez da guztiz besteen parekoa, baina bai oso antzekoa.

**-ORIO/A**

- auto **declaratorio** de la quiebra, auto **declaratorio** de herederos
- e-mail **recordatorio** de los cumpleaños
- mecanismo **suspensorio** de las mandíbulas superior e inferior<sup>8</sup>

**-DOR/A**

- enfermo **portador** de una enfermedad, enfermo **portador** de marcapasos
- máquina **expendedora** de tabaco
- normativa **reguladora** de protección civil
- medidas **correctoras** del impacto ambiental, lente **correctora** del astigmatismo, crema **correctora** de líneas y arrugas
- sociedad **protectora** de animales, film **protector** de pantalla
- oficina **recaudadora** de impuestos
- test **detector** de drogas
- espíritu **dador** de vida

**OHAR OSAGARRI BATZUK**

**-nte.** 1 Sufijo de **adjetivos derivados de verbos**. Estos adjetivos son llamados tradicionalmente **participios de presente** o **participios activos**. El sufijo se presenta en la forma *-ante* cuando la base es un verbo de la conjugación en *-ar*, en la forma *-ente* o *-iente*, cuando la base es un verbo en *-er* o en *-ir*. Significa ‘que hace la acción’: *amante, principiante, ambulante, conducente, equivalente, permanente, complaciente, conveniente, concerniente*. Algunos de estos adjetivos **se sustantivan de modo habitual**; otros **se han lexicalizado como nombres**: *presidente, asistente, sirviente*. En algunos de estos casos se ha creado una forma femenina en *-a* (*presidenta*, etc.). [http://www.elhabanero.cubaweb.cu/servicios/espa\\_90.html](http://www.elhabanero.cubaweb.cu/servicios/espa_90.html)

**participio activo.** Derivado verbal que en español acaba en *-nte* y denota **capacidad de realizar la acción que expresa el verbo del que deriva**. Muchos proceden de participios de presente latinos y hoy se integran, en su mayor parte, en la clase de los adjetivos (*alarmante, permanente, balbuciente*) o de los sustantivos (*cantante, estudiante, presidente*); algunos se han convertido en preposiciones (*durante, mediante*) o en adverbios (*bastante, no obstante*). [RAE: *Diccionario panhispánico de dudas*. Madrid: Santillana, 2005, p. 767-768]

**participio de presente.** Equivale a *participio activo*. Se llama así porque en latín se forma sobre el tema de presente de los verbos, al que se añaden las desinencias correspondientes a los distintos casos. Los participios de presente latinos se enuncian con las terminaciones *-ns, -ntis*: *amans, amantis*. [RAE: *Diccionario panhispánico de dudas*. Madrid: Santillana, 2005, p. 767-768]

<sup>8</sup> Zalantza daukat besteak bezalako den edo ez.